

LABek kudeaketa arloko merezimendu lehiaketarako ekarpenak bidali ditu

LABek Haurreskolak Partzuergoari kudeaketa arloko Kontsolidazio prozesuaren merituen lehiaketan Haurreskolak Partzuergoko **lan esperientziari balio gehiago ematea lehenesten du**.

Jakingo duzuen moduan, **LABek** **sinatutako akordioari esker eta irabazitako demandari esker** kudeaketa arloan 27 lanpostuz osatutako **Lanpostuen Zerrenda** sortu da. Ondorioz, Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa arloan, **26 lanpostu eskainiko dira lan eskaintza publikoan**: 12 langile administratiboenak, 11 erdi mailako teknikarienak eta 3 goi mailako teknikarienak. Zuzendari Pedagogikoaren lanpostua, irailean sortu eta kontratatua denez, ez da prozesu honetan eskainiko.

Legez, abenduaren 31a baino lehen Lan Eskaintza Publikoaren deialdien oinarri orokorrak argitaratu behar dira. Irailean izandako mahai negoziatzailean aurkeztu ziguten deialdiaren lehenengo zirriborroa eta pasa den ostiralean bukatu zen Partzuergoari ekarpenak bidaltzeko epea.

Hauk dira **LABek egindako proposamearen ildo nagusiak**:

Barematuko diren ATALAK	PARTZUERGOAREN proposamena	LABen proposamena
Lan esperientzia Orokorra <ul style="list-style-type: none"> • Edozein administrazio publikotan kategoria berean* Espezifikoa <ul style="list-style-type: none"> • Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa arloan kategoria berean* 	- 15 urtetara mugatzen du lan esperientzia. - Lan esperientzia bi aldiz zenbatzen da: Administrazio publikoetako atal orokorrekoa + Haurreskolak Partzuergoko atal espezifikokoa -Espezifikoa: kategoria horretan egindako esperientzia Haurreskolak partzuergoan. Puntuazio lineala proposatzen du.	- 17 urtetara mugatzea. -Lan esperientzia bi aldiz zenbatzea. Espezifikoa - Urteka era progresiboan puntuazioa igotzen joatea, gaur egun Partzuergoan lanean daudenak sarituz -Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa arloan beste kategoria batean egindako lana ere barematzea proposatu dugu
	Puntuen % 55	Puntuen % 90
Beste merezimenduak <ul style="list-style-type: none"> • Ordezkoen zerrendan egotea • Formazioa -Ikastaroak: kudeaketarekin zerikusia dutenak -Ikasketa ofizialak/ titulazioak: • Informatika-ezagutzak: ITak 	Puntuen % 45a Atzerriko hizkuntzak baloratzea	Puntuen % 10a Atzerriko hizkuntzak ez baloratzea

- **Salbuespeneko Kontsolidazio prozesua legez 2024ko abendua baino lehen bukatuta egon behar du.** Partzuergoak 2023ko iraila baino lehen egin nahi badu ere LABek prozesua ondo egitea lehenesten du.
- **Aurretiatzko lan esperientzia atala:** Haurreskolak Partzuergoko esperientzian, soilik kudeaketa arloan izandako lan esperientzia barematzea.
 - Lan esperientzia espezifikoa **bigarren azpiatala gehitzea proposatu dugu:** Haurreskolak Partzuergoaren kudeaketa arloan beste kategorietan izandako lan esperientzia zenbatzea, puntuazioen arteko proportzioa heren batekoa izanik. (espezifikoa kategorian berean, orokorra eta azkenik, espezifikoa beste kategorian batean 9/3/1).
- **Formazioa:** Soilik kudeaketa arloarekin lotutako gaiekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroak zenbatzea proposatu dugu.
- **Titulazioa:** A-B kategorian: kudeaketa arloarekin zerikusia duten masterrak gehitzea proposatu dugu.
- **Ordezkoen zerrenda:** Deialdia argitaratu baino aurreko urtebetean kontratua indarrean izan duten kudeaketa alorreko langileen batek lanpostu finkoa lortuko ez balu, egoera horietan dauden langileen artean ordezkoen zerrendan **lehentasunezko ordezkoen zerrenda bat osatzea.**
- **Monografiak:** LABetik lanpostu bakoitzaren monografiaren negoziazioa lehenetsi zuen prozesu hau aurrera eraman ahal izateko. Kudeaketako langileen ekarpenak jaso eta baloratu ditugu.

Ekarpenak bidalita, oraindik zehaztuta ez dagoen hurrengo mahai negoziatzailean ezagutuko ditugu Haurreskolak Partzuergoak eta Administrazioak onartutako ekarpenak. LAB sindikatutik prozesuaren inguruko informazio zehatz guztia langileekin partekatuko du egingo ditugun langileen asanbladetan. ANIMO ETA AURRERA!